



UDAL ERABAGI MOTA GUZTIAK HARTZEKO PROZEDURA

Kodea: PR 04.31/02-19

Orrialdea: 1 / 6

Data: 2019ko uztailan

KOMUNIKAZIO SISTEMA

MODUA	ERANTZULEA	DATA
INTRANET: Intranetean jarrita udal guztiko langile eta ordezkariak kontsultatzeko moduan	Pili Gerrikagoitia	Ebazpen egunean

ALDAKETEN HISTORIKOA

Edizinoa	Data	Aldatu diran atalak-eremuak
2.	2019-07-10	Legealdi aldaketa, udal egitura eta eskuordetza dekretuaren arabera prozedura egokitu da.

ONARPEN EGITURA

Erantzulea: Prozesu jabea

ATB Saila

Onartu dauana

TGB

Sortze data: 2018ko martxoa

Onarpen Data: 2018-12-10

Berrikuspen Data: 2019-07-10

Berrikuspenaren onarpen data:

1.- XEDEA

Prozedura honen helburua, udal guztiko langile eta ordezkari politikoek, ebazpenak hartzeko dauden aukerak, betekizunak eta jarraibideak jasotzea da, kasuz kasu, dagokion bidea jarraituta, ebazpen prozedura akats barik eta berme guztiekin egin dadin.

2.-IRISMENA

Udal sail guztiak eta udal ordezkari politiko guztiak

3.- AZPIPROZESUAK

OSOKO BILKURAKO EBAZPENAK



UDAL ERABAGI MOTA GUZTIAK HARTZEKO PROZEDURA

Kodea: PR 04.31/02-19

Orrialdea: 2 / 6

Data: 2019ko uztailan

ALKATEA	2.1.TOKIKO GOBERNU BATZARRA: 2.2.-ESKUORDETUTAKO DEKRETU BIDEZKO AHALMENAK ETA AHALMENDUNAK:
DIRUZAINAREN EBAZPENAK	

4.- PROZESUAREN SARRERA ETA URTEERAK

PROZESUAREN SARRERA ETA IRTEERAK					
Sarrerak (INPUTA)	Baliabideak	Irteerak (OUTPUTA)	Bezeroa	Faktore klabeak	Konpromisoak
Erabagi proposamenak Espedientea	Swal	Ebazpen eta jakinarazpenak	Herritarra Pertsona Juridikoa Udal langileak	Eraginkortasuna	Akats barik burutzea, kasuz kasu jarribidea ezagututa

5.- PROZESUAREN KUDEAKETAN ETA HOBEKUNTZAN ERANTZUNKIZUNAK, ARDURADUNAK:

Jabea: **ATB Saila**
Kudeaketarako parte hartzaileak: Udal sail guztiak – Koordinazio gunek – **Zuzendaritza**

6.- GARAPENA

1.- OSOKO BILKURA:

Udal honetako **Osoko Bilkurak**, Legeek kasuan kasu emondako ahalmenetaz gain, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, bere [22. Artikuluan](#) jasotzen dituen ahalmenak ditu; gai horiek ebazteko organo erantzulea izango da. Osoko Bilkurak ebatzi beharreko gai hauen espedienteak, legezko zein prozedura aldeko betekizun guztiak bermatuta, **Osoko Bilkuraren data baino aste bete arinago** Idazkaritzan egon behar dira (**espediente guztiak modu elektronikoan jarri bitartean**), aztertu, egiaztatu eta ordezkari politikoak eskuragai izateko.

Osoko Bilkurak ebazten dituen gai guztiak, organo honetara bideratu aurretik, nahitaezkoa da Batzorde Informatiboaren diktamena izatea, horretarako, dagokion Saileko espedientearen erantzuleak:

- Batzorde informatiboa baino lehen egin beharreko koordinazio bilerarako guztia prest uzten du.
 - Koordinazio bileran, batzordean landuko diren gaien azterketa egiten da eta gai hori batzordera eroan eta Osoko Bilkuran ebatzi behar den ondorioztatzen da, horren erantzulea den sailburu teknikoak, **Osoko Bilkurak ebazteko gai bat dela Swal aplikazioan adierazteko eta erabaki proposamena eranste**ko.
 - Pausu hori eginda, **Batzorde Informatiboko idazkari lanak egiten dituen langileak**, batzordea antolatzeke edukiak kudeatzen ditu, horien gainbegiratzeari ekiteko **Idazkaritza Sailean eta horren ostean, gai zerrenda osatu zein Dekretua prestatzeko**.
- *Kasu guztietan, Osoko Bilkurarako diren gaitan, Batzorde informatiboa **egin aurretik (aste bete leheneago)** egon behar dira **prest espedienteak Swalen**, Osoko Bilkurarako diren gaien espedienteak gainbegiratu eta diktaminatzerakoan beharrezko guztia dagoela eta zuzen dagoela bermatzeko.

-Osoko Bilkurara doazen gaiak zuzen daudela bermatuta, Batzorde Informatiboaren **deialdiaren dekretua** egiten da modu automatikoan. Espedienteak eta bileraren deialdia eskuragai uzten dira Udalaren Egoitza Elektronikoa, parte diren kide guztiak edukiak aztertu eta deialdiaren jakinarazpena jasotzeko.

-Saioa egin ostean, aplikazioan bertan aurretiaz sartutako erabaki proposamenekin **akta zirriborroa** prestatzen du Batzordeko Idazkariak; **dagokion Zinegotziari izenpetzera** bideratzen zaio akta eta **gaiak prest gelditzen dira Osoko Bilkuran ebazteko.**

Osoko Bilkurako gai zerrenda egiteko, aplikazioak aktibaturik uzten ditu jada Batzorde Informatibotik igarota eta Osoko Bilkurarako direla adierazita dauden gaiak, hartzeko. Gai guzti hauen espedienteak (**elektronikoak direnak**) zein Dekretuak ikusgai dituzte udal ordezkari politikoei euren Egoitza Elektronikoko norbere karpeta, karpeta berean, deialdiaren Dekretua jasotzen dute, gai zerrendarekin batera landuko diren gaien informazio guztia izateko.

2.- ALKATEA:

Udaleko Alkateak, Legeek kasuan kasu emondako ahalmenetaz gain 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, bere **21. Artikuluan** jasotzen dituen ahalmenak ditu. Bestalde, 2019ko ekainak 21ean **1479 zenbakia** daroan Dekretuan jasotzen den bezala, **2.1.Tokiko Gobernu Batzarren alde ahalmen hauek** delegatzen ditu:

2.1.TOKIKO GOBERNU BATZARRA:

Urigintza:

- Urigintza eta Ingurumeneko lizentziak onartzea, obra txikiak izan ezik.
- Ordezko exekuzioa espedienteak hastea eta amaitzea.
- Egite aginduak ematea.
- Urigintza legalitatea berreskuratzeko espedienteak hastea eta amaitzea.
- Urigintzako instrumentuen onarpena:
 - Planeamendu Orokorra garatzeko instrumentuen onarpena.
 - Urigintz kudeaketako instrumentuen onarpena.
 - Urbanizazio proiektuen onarpena.

Ekonomia:

- Hurrengo gastuak onartzea:
 - Diru-laguntzak emateko deialdiak onartzea eta ebaztea (AD faseak)
 - Diru-laguntza nominatiboak emateko erabakiak hartzea
 - 15.000 euro edo eurotik gorako gastuak (BEZa kanpo) onartzea eta xedatzea.

Langileria:

- Langileei diziplina espedienteak zabaldu eta amaitzea.
- Langileei Espediente informatiboak edo argitze espedienteak zabaldu eta amaitzea.
- Langileen eskari hauek ebaztea:
 - Lanaldi murrizketak.
 - Eszedentzia eskariak.
 - Edoskitze lizentziak.
 - Lanpostua aldatzeko eskariak
- Langileen lan egutegiak onartzea.

Kontratazioa:

- 15.000 euro edo eurotik gorako (BEZa kanpo) kontratazio espedientetako baldintza agiri, deialdi eta esleipenen onarpena, kontratuen luzapenak ebaztea eta kontratazioaren exekuzioarekin lotutako besteko erabakiak hartzea, esleipen prozeduran egon daitezken galderak erantzutea izan ezik.

Ondarea:

- Jabari publikoaren okupazio lizentziak ematea, beti ere, 3 egunetik gorako iraupena daukatenean, obra lizentzia batekin lotura ez badauka, ezta kultur ekipamendu batekin.
- Emakida espedienteak hasi eta esleipenak onartzea, eta emakiden eskualdatzeak, bajak eta berreskuratzeak onartzea.
- Ondasunen eskuratzea onartzea, eskuratze modua edozein izanda be.
- Ondasunen salmenta espedienteak hasi eta salmenta onartzea, eta eskaerak ebaztea.
- Egurren aprobetxamendurako lizentzien eskariak ebaztea.
- Eraikinen lan egutegiak onartzea.
- Tabernen ordutegia onartzea.

Orokorrak:

- Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakien aurkako errekurtsioak ebaztea
- Ordenantzen urraketen ondorioz, Udaltzaingoari ez jagokezan bestelako zehapen edo zigor espedienteak hasi eta amaitzea.
- Lankidetzeta hitzarmenak onartzea.
- Lehiaketan deialdiak eta irabazleak ebaztea.
- Protokoloak onartzea.
- Prozedura eta inprimaki eredu normalizatuak onartzea.

- 1.-Tokiko Gobernu Batzarrak ebatzi beharreko gaiak, Swal aplikazioan **TGB erabagiak** aukeratu eta dagokion **erabaki proposamena erantsita**, bideratzen dira.
- 2.- Bilera baino **aste bete** arinago sartuta utzi behar da dagokion erabaki proposamena.
- 3.- Proposamen guztiekin, **gai zerrenda osotu**, deialdiaren dekretua prestatu eta ordezkari politikoei jakinarazten zaie.
- 4.-Espedienteak, bilera baino **aste bete arinago, Idazkaritzan** egon behar dira (**espedientea paperean egotekotan eta elektronikoki jarri bitartean**).
- 5.-Jasotako erabaki proposamen guzti horiekin, aplikazioak, akta zirriborroa proposatzen du, gero dagozkion datuak sartu, aldatetako egin eta informazioa gaineratuta **akta osotu, lekualdatzeak egin, jakinarazpenak igorri eta ziurtagiriak** sinatzera igortzeko.

2.2.-ESKUORDETUTAKO DEKRETU BIDEZKO AHALMENAK ETA AHALMENDUNAK:**❖ ZINEGOTZI DELEGATU GUZTIEK HONAKO AHALMENA DUTE:**

- Zerbitzua zuzentzea eta kudeatzea.
- 15.000 eurotik beherako legezko gastuak (BEZa kanpo) onartzea, xedatzea eta agintzea eta legezko esleipenak onartzea, xedatzea eta agintzea (A,D,O faseak).
- 15.000 eurotik beherako kontratazio espedienteetan (BEZa kanpo): kontratazio espedienteen hasia eta beharizanaren justifikazioa onartzea, baldintza agiri, deialdi eta esleipenen onarpena, kontratuen luzapenak ebaztea eta kontratazioaren exekuzioarekin lotutako besteko erabakiak hartzea
- 15.000 euro edo eurotik gorako kontratazio espedienteetan (BEZa kanpo): espedientea hasia eta beharizanaren justifikazioa onartzea. Eta esleipen prozeduran egon daitezkeen galderak erantzutea.
- Obra eta zerbitzu proiektuak onartzea.

❖ URIGINTZAKO ZINEGOTZI DELEGATUAK HONAKO AHALMENAK DITU:

- Obra txikien lizentziak ematea.
- Ibi (pasabide) lizentziak eman eta kentzea.
- Jabari publikoaren okupazio lizentziak ematea obra lizentziekin lotura zuzena badaukate edo terrazak eta mahaiaik baimentzeko bada.

❖ EKONOMIAKO ZINEGOTZI DELEGATUAK HONAKO AHALMENAK DITU:

- 15.000 euro edo eurotik gorako legezko gastuen (BEZa kanpo) fakturen onarpenak egitea (gastua agintzea "0" fasea).
- Kuota guztiak onartzea, xedatzea eta agintzea (jabe elkarteei dagokienak, bazkide kuotak, etab.).
- Ordainketen agintzea alkatea ez dagoenean.
- Zerga, tasen eta salneurri publikoen kitapenak eta padroiak onartzea.
- Frakzionamendu eta atzerapenak onartzea.
- Kitapen tributarioen kontra aurkezten diren errekurtsioak ebaztea.
- Langileen soldata aurrerapenak eta laguntza sozialak ebaztea.
- Langileen kontsumo eskariak ebaztea
- Administrazioako ondare erantzukizuneko espedienteen erresoluzioa.
- Diruzaintzako arkeoak onartzea.
- Fidantzak itzultzeko eskariak ebaztea.

❖ KULTURAKO ZINEGOTZI DELEGATUAK HONAKO AHALMENA DU:

- Kultur ekipamenduen erabilera baimentzea.

❖ LANGILERIAKO ZINEGOTZI DELEGATUAK HONAKO AHALMEAN DU:

- Langileen ikastaro baimen eta ordainketa eskariak ebaztea.

Alkateak zein adierazitako eskuordetza bidez ahalmena duten zinegotziak ebazten dituzten gaiei dagokienez:

- 1.- Espedientearen erantzuleak, Swalen, **Dekretuak** (dagokiona) deitzen den espediente mota aukeratuko du eta dagozkion dokumentuak (espedienteak behar dituenak) zein **erabaki proposamena eransten** ditu.
- 2.- Dauden eskuordetza eta ondoriozko ahalmenen arabera, **Dekretuaren testua Swalen** sartzen da eta eskumena duen **ordezkari politikoari bideratzen zaio**.
- 3.- Ahalmena duen ordezkariak izenpetzen duen momentuan **Dekretuaren zenbakia** jarri, dagozkion **lekualdatzeak** egin eta jakinarazi behar izatekotan, **irteera** automatikoki eman eta **jakinarazpena** sinatzen da.

3.-DIRUZAINAREN EBAZPENAK:

Azkenik, eta derrigorrezko dirubilketarekin erlazionatuta, Udalak honako ebazpenak ere egiten ditu: "**Diruzainaren Ebazpenak**".

Bahiketa ezberdinak, **zorren zatiketak** eta **derrigorrezko diru-bilketako errekurtsioak** ebazten dira modu honetan.

Derrigorrezko diru-bilketa prozesuaren espediente egileak dagokion proposamena egiten du eta Swalen, Diruzainak ebazten du. Izenpetzen duenean, aurreko kasuan bezala, dagokion zenbakia, adierazitako lekualdatzeak, irteera eta jakinarazpena burutzen dira modu automatikoan.

7.- ADIERAZLEAK



UDAL ERABAGI MOTA GUZTIAK HARTZEKO PROZEDURA

Kodea: PR 04.31/02-19

Orrialdea: 6 / 6

Data: 2019ko uztailan

Adierazlea	Nork Aztertu	Non Aztertu	Noiz Aztertu	Nola Aztertu
PROZESUA Ebazpen kopurua	ATB Saila	Ertzila, 6- 8	Urtero	Swal-Bilera
EMAITZAK Atzera bueltatu diren espediente kopurua ebazpen jarraibidean akatsak egoteagatik (aztergai) Tramitazio epea (aztergai) Idazkariaren kontrako irismenarekin ematen den ebazpen kopurua (aztergai)	ATB Saila	Ertzila, 6-8	Urtero	Swal-bilera

8.- LEGERI APLIKAGARRIA

- [Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea](#)
- Toki Erregimena aurautzen duen 7/1985 oinarri Legea
- Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua, Toki erakundearen antolaketa, jardueraren eta araubide juridikoaren araudiari buruzkoa
- 2016ko Apirilaren 27ko Erregelamenduaren, 2016/679 (EB) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoaren babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituenak
- Datu Pertsonalak daukiezan fitxategi publikoak eta Datu Pertsonalak babesteko Euskadiko Babes Bulegoaren sorrerari buruzko zezeilaren 25eko 2/2004 Legea .

9.- ERLAZIONATUTAKO DOKUMENTAZINOIA

1. Sarrera eta urteera prozesua: PR 05.09
2. Swaleko argibideak

10.-AZALPENAK

11.- OHARRAK